



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA elkartu da, bigarren deialdian, Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 20ko 16:00etan, Administrazioak utzitako lokalean eta kide hauek bertaratu dira:

José Antonio Nieto Antón jauna  
Estefanía Ocáriz Passevante andrea  
Miren Ortubay Fuentes andrea  
Ricardo Egiguren Mendieta jauna  
Francisco Javier Hernández Manrique jauna, idazkaria

Ezin dela etorri adierazi du honek:  
Joaquín Giménez García jauna, batzordeburua

**Lehenengo puntua.**-Batzordeburua ez dagoenez, bertan dauden batzordekideek Estefanía Ocáriz Passevante andrea izendatu dute bilera horretan batzordeburua ordezkatzeko.

**Bigarren puntua.**- Egoitz Laburu Rodríguez Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak agerraldia egin du, Batzordeak interesa agertu duen baliabide materialen eta jarduketan egoerari buruz informatzeko. Hari ohar bat bidaltzea erabaki da, komentatutako behar materialei eta haien justifikazioari dagokienez, Batzordearen jarrera zein den argitzeko .

**Hirugarren puntua.**- 2021eko apirilaren 12ko bileraren akta irakurtzea eta onartzea. Akta onartu da, baita akta horri, eranskin gisa, web-orrietako testuetan egin beharreko zuzenketari buruzko dokumentua gehitzea ere; izan ere zuzenketak egun horretako bileran onartu ziren.

**Laugarren puntua.**-SOS Arrazakeriaren izenean jasotako idazkia. Horri Batzordearen posta-kontutik erantzutea erabaki da, aurkeztutako proposamena erabiliz; eta horretan agertuko da erabakiaren edukia buruzko ziurtagiria, Batzordearen eskumenen berri ematen duena.

Eta lantzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitu da egun horretako 18:00etan.